

- 8 OCT. 2004

Entrada

**VII.4. LEHEN HEZKUNTZA: HIRUGARREN ZIKLOA.  
GERTAERA**

# AURKIBIDEA

I.- Planifikazioa.....	
1.- Erizpideak.....	3
2.- Planifikazioa.....	5
II.- Lehenengo moduloa.....	
1.- Lehenengo moduloa.....	6
2.- Ikasleen orrialdeak (ariketak).....	7
III.- Bigarren moduloa.....	
1.- Bigarren moduloa.....	14
2.- Ikasleen orrialdeak (ariketak).....	16
IV.- Hirugarren moduloa.....	
1.- Hirugarren moduloa.....	30
2.- Ikasleen orrialdeak (ariketak).....	32
V.- Haurren produkzioak.....	

## TESTU MOTA

Gertaera berri testua aukeratu egin da arrazoi ezberdinengatik:

Seigarren mailan , gure zentroan ohizkoa den bezala eta erabiltzen den testu liburuaren proposamena hartuta , kurtsuan zehar egiten diren hainbat lanekin aldizkari bat argitaratzen da , bertan , besteak beste , gertaera berriak sartuz. Beraz, aldizkari honetarako testu mota bat lantzea komenigarria ikusi zen, hurrek haien lanerako helburu erreal bat izan zezaten.

Zeuden posibilitateak aztertu ta (denbora pasak , elkarrizketak , iritzizko eskutitzak , erreportaiak...) mintegi honekin lotura gehiago izango lukeen testu mota gertaera litzakeela erabaki zen .

Honez gain , testu liburuak testu mota honetarako hainbat lan eskeintzen zuen eta , egokitu behar izan arren , hainbat ariketa probetxagarriak izan litezke.

Beste aldetikan testu mota hau oso gutxitan landu egin dute hurrek beste testu motekin konparatuz , ipuina kasu , eta modu sakon batez lantzea beharrezkoa ikusi zen.

## EDUKIAK

Sekuentziako edukiak aukeratzeko ez da aurreproduzio berezirik programatu . Testu liburuaren lehenengo ikasunitatean hurrek , proiektu bezala, gertaera batetik ipuin bat sortu behar zuten eta lan hau eta batera egin ziren ariketak hartu dira aurrebaluaketa gisa, bertan ikusten baitziren hurrek zituzten hutsunik nagusienak. (Testu liburuak gertaera berria bereziki lantzen du bigarren ikasunitatean , beraz, hurrek lehenengo lana burutzerakoan ez zuten gertaerari buruz inongo berririk).

Aldizkarian agertuko diren gertaerak aurreproduzio bezala ere egingo dira , ikasleek beraien bilakaera eta aurrerapenak ikus ditzaten.

## GAIK

Helburu erreal baten bidean jarraitzeko , asmatutako gertaerak deseustatu ziren lehenengo momentutik (honela planteatzen du testu liburuak) eta azken bi urte hauetan ikastolaren inguruan gertatutako anekdotak gaitzat hartzea erabaki zen.

## TALDEKO LANA

Proiektu hau binaka eta idatzita burutuko da eta honela banatuko dira irakasleak aurreprodukzioa eta bukaerako lana egiteko. Lehen komentatu den bezala, aurreprodukzioa eta bukaerako produkzioa berdinak izango dira.

Hasieran denon artean zerrendatuko dira bi urte hauetan ikastolan gertatutako anekdotak. Bikote bakoitzak (partaidetza haurren eskuetan gelditzen da) anekdota bat aukeratzen du gertaera berria burutzeko.

Lanaren lehenengo pausoa, tailerrekin hasi baino lehen, anekdota gertaera berri bat bezala kontatzea izango da.

Ondoren tailerren lanarekin hasiko da eta honetarako lan talde berriak sortuko dira. Kasu honetan irakasleak izendatuko du konposaketa eta kopurua, heterogenitatea kontutan hartuz (bost-sei kide, sexu, ahalmen eta habilitate ezberdinetakoak). Talde hauek funtzionatzen duten bitartean, bozeramailearen ardura eta idazkariaren ardurak partaiden artean txandakatzen joango dira, honela lan hauetan guztiak aritzeko.

Behin tailerrak bukatzen direla, berriro bikoteak elkartuko dira azken produkzioa egiteko ikasitakoa erabiltzen kontrol zerrenda baten laguntzaz (KZ).

Azken pausoa bikote bakoitzak aurreprodukzioa eta azken produkzioa aztertze eta konparatzeari ekingo dio autoebaluatzeke.

TEXTU	KONTEXTU	PLANIFIKAZIOA	TEXTUALIZAZIOA
6.Mailako kurtso bukaeran argitaratuko den aldizkariarako azken bi urteetan ikastola inguruan gertatutako hainbat anekdotaz aldizkariarako gertaerak burutzea.	<p>*Aldizkariarako gertaerak idatzita (binaka eta lehen aldian).</p> <p>Tailer 1: Zer da egunkari bateko gertaera?</p>	<p>*Gertaeraren diegesia(istorioa)</p> <p>*Gertaerak dituen narrazio estruktura bereziak: Titularra, azpтитularra, script, laburpena , detaileak.</p> <p>Tailer 2 : Gertaerak istorio bat kontatzen digu? (kronologikoki)</p> <p>Tailer 3: Nola antolatzen da istorioa gertaera batean?(orden kronologikoaren aldaketak)</p> <p>Tailer 4 :Zeintzu atal ditu gertaera batek? Titularra, azpтитularra, skript, laburpena , detaileak.</p>	<p>*Elipsia: Titularren estruktura sintaktika berezia.</p> <p>*Parrafoak: Titularra, azpтитularra, script , laburpena , detaileak</p> <p>*Konektoreak: denbora kausal-kontsekutiboak</p> <p>*Aditza: Lehen aldia(mometuzkoa, ohizkoa eta bukatua).</p> <p>Tailer 5: Titular batean hitz guztiak agertzen dira?</p> <p>Tailer 6: Nola bereizten ditugu gertaera baten atal ezberdinak?</p> <p>Tailer 7: Zeintzu hitz erabil ditzakegu gertaeran ematen ditugun datoak lotzeko?</p> <p>Tailer 8: Gertaera lehen aldian kontatzen dugu , baina beti berdin?</p>

# 1. MODULOA

## KONTEXTUALIZAZIOA

Aldizkarirako gertaerak idatzita (binak eta lehen aldian)

### TAILERRAK

1.1. Zer da egunkari bateko gertaera berri bat?

### ARIKETAK

**1.1. Egunkarian/  
aldizkarian  
agertzen diren  
testuen  
ezberdinen  
azterketa.**

1. Irakasleak emandako egunkari/aldizkaritatik 6 testu ,taldeka, irakurri ,bakoitzak duen mamia , helburua , estruktura, soportek... aztertzen. (IK1)
2. Taldeka irakasleak lagungarri bezala emandako txantiloaren (IK2) bidez testu honen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak (mamian , helburuan , estrukturan , soportetan...) idatzi.
3. Talde guztiek bere lana amankomunean jarri.

**1.2. Egunkari/  
aldizkari bateko  
gertaera berria  
definitzen dituen  
ezaugarriak  
barneratzea.**

1. Talde bakoitzari hiztegi edo entziklopedietan agertzen diren (erreportaia , iritzizko artikuloa , iritzizko eskutitza , elkarrizketa , berri informatiboa eta gertaera) emandako definizioak irakurri.(IK3).
2. Aurreko puntuan irakurritakoa kontutan hartuz eta amankomunean jarri duten txantiloa erabiliz , lehenengo 6 testoak zein definizioarekin lotuko zituzten aztertu.
3. Amankomunean jarri.
- 4.- Denon artean gertaera berri bat dituen ezaugarriak zehaztu.

## 2. MODULOA

### PLANIFIKAZIOA

\*Gertaeraren diegesia (istorioa)

\*Gertaerak dituen narrazio esturktura bereziak: titularra, azpitarra , skript , gertaeraren datu nagusiak , detaileak).

#### TAILERRAK

2.1. Gertaerak istorio bat kontatzen digu? (Kronologikoki).

2.2. Nola antolatzen da istorioa gertaera batean? (orden kronologikoaren aldaketak).

2.3. Zeintzu atal ditu gertaera batek? (titularra , azpitarra , skript, gertaeraren datu nagusiak , detaileak).

#### ARIKETAK

**2.1. Ezagutzen dugun narrazioaren (ipaina) esturktura berrikustea.**

1. Denon artean ipuin bat antolatzerakoan erabiltzen dugun eskema ateratzea.
2. Aurreko moduloan erabilitako 6 testu hoietan gertaeran bakarrik ipuin esturktura hori atera daitekela baiztatzea.
3. Irakasleak emandako egunkari/aldizkarietatik ateratako 6 gertaeratan esturktura kinaria ateratzea. Talde bakoitzak bat egingo luke.(IK4)
- 4.- Besteei azaltzea.

**2.2 Gertaera idazterakoan estruktura kinariaren ordenaren aldaketaz jabetzea.**

- 1.- Talde bakoitzak ateratako gertaeraren narrazio estrukturaren parteak(kronologikoki ordenatuta dago) gertaeran non agertzen diren aztertzea.
- 2.- Talde bakoitzak parte bakoitzean zeintzu datu azpimarratzen diren aztertzea.(52liburua)(IK5).
- 3.- Besteei azaltzea.
- 4.- Denon artean gertaerarean estruktura ateratzea.
- 5.- Emandako aurreko sei gertaeretatik ateratako estruktura kinaria konparatu gertaerak duen estrukturarekin konprobatzeko gertaeraren estruktura guztietan ematen dela eta egiten diren aldaketak.(Norberak bere gertaera)
- 6.- Aurreko guztia kontutan hartuz , taldeka , liburuko 63 orrialdean proposatzen den lana burutu.(IK6).

**2.3. Gertaerak dituen atal ezberdinak ateratzea.**

- 1.- Gertaera batzuen zatiak(IIK7) bost multzotan jarri:batean titularrak , bestean azpitularrak , hirugarren batean skriptak, laugarrenean 1go lerroaldea eta 5.enean gainerako lerroaldeak. Talde bakoitzeko arduradun batek , titular bat hartu eta taldera eramango du aztertzeko.Talde bakoitzeko bigarren arduradun batek , behin titulua aztertu ondoren , azpitoluaren multzora joan behar du titulu horri dagokion azpitolua hartzera.Hau aztertu ondoren, hirugarren batek skripten multzotik dagokiona hartu behar du,laugarren partaide batek ,lehenengo lerroaldea eta bostgarren batek gainerakoa.

Parte guztiak ordenatuta berria osatuko dute.

- 2.- Irakasleak lehen emandako sei testu hauek taldeka aztertu zenbat parte ezberdin dauden konturatzeko.
- 3.- Talde bakoitzak parte bakoitzari izen bat eman beharko dio eta zehaztu zati bakoitzean kontatzen dena.
- 4.- Irakasleak emandako txantiloa erabiliz (IK8) izendaketa amankomun batetara iritsi.



### 3. MODULOA

#### TEXTUALIZAZIOA

\*Elipsia: Titularraren estructures sintaktika berezia.

\*Parrafoak: Titularra, azpitularra, skript , laburpena , detaileak

\*Konektoreak: denbora  
kausal-kontsekutiboak

\*Aditza: Lehen aldia (mometuzkoa , ohizkoa eta bukatua).

#### TAILERRAK

- 3.1.- Titular batean esaldiaren hitz guztiak agertzen dira?
- 3.2.- Nola bereizten ditugu gertaera baten atal ezberdinak?
- 3.3.- Zeintzu hitz erabil ditzakegu gertaeran ematen ditugun datuak lotzeko?
- 3.4.- Gertaera lehen aldian kontaktzen dugu , baina beti berdin?

#### ARIKETAK

**3.1.-  
Titularraren  
estruktura  
sintaktika  
berezia  
aztertzea.**

- 1.- Talde bakoitzari sei titular (IK9) ematen zaio. Titular hauetan aditza falta da. Txantilo baten laguntzaz aztertu behar dute zeintzu diren falta diren hitzak eta esaldia osatuta nola geldituko litzateken.
- 2.- Talde bakoitzari sei titular ematen zaio (IK10). Titular hauetan aditza agertzen da, baina jokatu gabe; deklinatua, baina aditz laguntzailerik gabe. Aztertu behar dute zein den faltako litzateken hitza eta esaldia osatuta nola geldituko litzateken.
- 3.- Talde bakoitzari sei titular (IK11) ematen zaio. Titular hauetan esaldi osoa idatzita dago. Aurreko bi lanetan aztertutakoa kontutan hartuz , esaldi hau nola labur daiteken pentsatu eta idatzi.
- 4.- Denon artean amankomunean jarri.

### 3.2

**Titularra,azpiti-  
tularra,skript,  
desarroiloa eta  
detaileak  
bereizteko  
erabiltzen diren  
puntuazioa eta  
itxurapenak.**

- 1.- Talde bakoitzak orain arte ikusitako testo guztietako parte hauek aztertuko ditu.(lerroaldeak , letraren tamaina , azpimarraketa , kokapena , letra mota...)
- 2.- Denon artean amankomunean jarri.

**3.3 Denbora eta  
zergaiti-  
ondorioak  
adierazteko  
hitzak landu.**

- 1.- Talde bakoitzari marrazki bat (IK12) ematen zaio , bertan ekintza ugari agertzen direla.Papera kuadrikularen bidez zatituta dago. Lauki bakoitzak bere koordenadak ditu.Irakasleak esaldi batean (denbora , zergaitiak-ondorioak adierazteko hitzak daudela) azalduko du marrazkian agertzen den ekintza bat.Txandaka talde bakoitzari galdetuko zaio ea non dagon ekintza hori.Bide batez , lotzeko hitzak aipatu eta azpimarratu.
- 2.- Talde bakoitzari beste marrazki bat (IK13) ematen zaio bertan ekintza ugari agertzen direla. Papera kuadrikularen bidez zatituta dago. Lauki bakoitzak bere koordenadak ditu.Irakasleak emandako konektore hauen zerrenda erabiliz (IK14) ekintza hoiek adierazteko esaldiak burutu behar dituzte taldeek,konektore hoiek derrigorrez erabiliz.
- 3.- Talde guztiek honekin jolastu.

**3.4 Aditzaren  
lehen aldia  
momentuzkoa ,  
ohizkoa eta  
bukatua  
errepasatzea.**


- 1.- Talde guztietako partaide bakoitzari hogeit hamar esaldi (IK15) ematen zaio. Bertan aditza falta da.Ikasle bakoitzak hutsune hoiek bete behar ditu kontutan hartuz lehen aldian egon behar dutela eta ondo aztertzen ea momentuan , maiz edo bukatu den ekintza adierazten den.
- 2.- Taldekidekin konparatuz, talde bakoitza ados jartzen da erantzunan.
- 3.- Denon artean zuzendu.

# 1.-EMAKUMEA PUBLIZITATEAN\*

IK1-1

Eguneroko bizitzan gero eta eragin handiagoa dute komunikabideek eta, bereziki, publizitateak. Egunero mota orotako mezuak jasotzen ditugu, kontsumitzeko edo edonolako objektuak eta zerbitzuak erabiltzeko gonbitea luzatzen digutenak, betiere oso modu erakargarrian aurkezten dizkigutenak.

Baina publizitate-mezuak, iragarkiak, ez dira itxura batean diruditen bezain sinpleak. Askok, pertsona askorentzat mingarriak izan daitezkeen balore eta portaera motak isladatzen dituzte. Batzuek azaltzen duten emakumearen irudia topikoz beteta egoten da eta hori, sarritan, mingarria izan daiteke.



*Gizartearen eskakizuna da gorputza gero eta argalagoa edukitzea, publizitatean isladatzen den bezalaxe, eta hori izan daiteke, hain zuzen, anorexia bezala ko gaixotasun larrikeragiten dituzten arrazoieta baten.*

Hain zuzen, herrialde desberdinetan egindako azterlanen arabera, gurea barne, publizitatean emakumearen irudia erabiliz, emakumeak gaur egungo gizartearen duen paperari dagokionez, aurreiritzi sexistak indartu egiten dira.


## **Publizitateak gero eta eragin**

### **handiagoa du**

Publizitate-mezuak egiteko eta jendea erakartzeko modu desberdinak daude: sarritan, mezu erakargarriak lantzeko gizarte-estereotipoak erabiltzen dira. Gizarte-estereotipoa, errealitatearen eta gure gizartearen bizi diren talde edo gizabanako desberdinek betetzen duten zereginaren irudi sinplista ematea da, esate baterako, gazte abenturazalea, exekutiboa, emakume sentsuala edo agure jakintsua. Horrela, iragarkia ikustean, nolabait, pertsona horiekin identifikatuko garela edo pertsonaia horiek erakartzen gaituztela suposatzen da.

Beraz, errealitate atsegina, ulerterraza eta alderdi desatseginik gabekoa isladatzen da, iragarkietan azaltzen diren produktuen kontsumoa pizteko. Publizitate-mezu hauek, makina bat jasotzen ditugunak, bai hormirudietan, aldizkarietan edo telebistan, kontsumitzeko gonbitea egiteaz gain, bizitza ulertzeko modu bat ere proposatzen digute. Bertan proposatzen

dizkiguten gizarte-ereduek, oro har, gizonezkoen zereginak eta emakumezkoen zereginak azaltzen dizkigute, eta gazteria eta estetika bereziki azpimarratzen ditu. Iragarkien eragina, gaur egun, bereziki handia da saltzaileen xede diren talde nagusiari dagokionez: gazteenak, hain zuzen.




*Emakume langilearen Eguna ospatzeko, Kongresuan diseinatutako hormirudi eztabaidatua. Zenbait emakume diputatuk hormirudia kentzeko eskatu du, emakumearen irudi sexista isladatzen baitu.*

Gero eta emakume gehiago dago (baita gizonak ere, nahiz eta gutxiago), gaixotasun larriak izaten dituena, hala nola anorexia, gaur egun nagusia den eta batez ere komunikabideek igortzen duten argaltasuna lortu nahi baitute. Milioika gaztek euren bizitza arriskuan jartzen dute eta gazte askorentzako gaixotasuna gaintzea ezinezkoa izaten da.

## **Emakumeen irudi estereotipatua**


Lehen azaldu ditugun arrazoiengatik, komunikabideek eta, funtsean, publizitateak emakumearen irudiari ematen dion tratamendua aztertzea oso esanguratsua gerta daiteke. Sarritan erabiltzen dira irizpide konbentzionaletan oinarritutako estereotipoak, bi sexuen arteko giza desberdintasunak ezartzen dituztenak eta ideia matxistak pizten dituztenak. Adibidez: askotan familiako aitaren eta etxeko andrearen artean bereizketa argia egiten da, baita exekutiboa eta idazkaria, sendagilea eta erizaina, edo jostuna eta modeloa azaltzen direnean ere.

¿3cms.  
menos  
de cintura?  
**Gemma**



*Gizartearen eskakizuna da gorputza gero eta argalagoa edukitzea, publizitatean isladatzen den bezalaxe, eta hori izan daiteke, hain zuzen, anorexia bezalako gaixotasun larriak eragiten dituzten arrazoietakoa bat.*

Publizitatea aztertuz, askotan ikusten dugu emakumea edertasunaren edo sedukzioaren ideiarekin erlazionatzen dela. Horrez gain, askotan aurkitzen dugu gizonetzkoa denaren eta energikoa denaren arteko lotura; eta bestalde, emakumezkoaren eta ahuleziaren, kaskarina izatearen edo hauskorra izatearen arteko lotura. Estereotipo "klasiko" bat da, "garbiago garbitzearen" ardura besterik ez duen etxeko andrearen irudia: modu honetan, gizarte-zeregin tradizionala azpimarratzeaz gain, etxeko lanek duten garrantzia gutxitu egiten dute eta arinkeriaz azaltzen dute. Ez dago inolako arrazoirik emakumeak etxean duen irudia baztertzeko, baina etxea



Irudimen gutxi duten pubj izistei dagokienez, emakumearen gorputza eraldatu egiten dute. Bestela, nola uler daiteke gizonetzako koiolari buruzko iragarki batean emakumea azaltzea?

eta etxeko lanek emakumearenak bakarrik ez direla azpimarratu beharko litzateke.

#### Hiztegi sexista

Azken urteotan, publizitateaz gain, Espainiako Errege Akademiaren Hiztegian ere zenbait zuzenketa egiteko eskatu da. Hala nola, gizon publikoa, politikari bezala definitzen dena, eta emakume publikoa, prostituta bezala definitzen dena. Beste zenbait hitz, hala nola idazkaria, "idazkariaren emakumea", alkatesa "alkatearen emaztea", eta abar, horiek guztiak, emakumea gizonarekin duten harremanean oinarrituta definitzen dute. Bestalde, sorgina esatean "emakume itsusia eta zaharra" ulertzen da, baina aztia esaterakoan, "botere magikoak dituen gizona..." irudikatzen dugu; adibide honek ondo isladatzen du, emakumeek gaztaroko edertasuna izateak gizarte mailan duen garrantzia.

#### Publizitatea sakonki aztertuz

Irudi eta aurreiritzi mota hauek desagerarazteko, 1994an Publizitatearen Behatokia eratu zen, Emakumearen Erakundearen menpe dagoena. Erakunde honek komunikabideetan emakumeari ematen zaion tratamendu diskriminatzailea aztertzen du. Behatokiak, emakumeen aurkako irudi sexista azaltzen duten aldizkari, hormirudi edo telebistako iragarkiak baztertzeko eskatzen du. Jendea

#### Telebistako "Beste maiordomoa"

Telebistako iragarki baten ikuspegi desberdina


"Bi emakume, ama eta alaba, oso pozik daude etxeko sukaldean lortutako garbitasunarekin; baina amak, esperientzia haundiagoa duena, sukaldean lortutako garbitasuna hobe daitekeela uste du.

Une horretan, bat-batean, iragarkian pertsonaia bitxi bat azaltzen da, mende hasierako maiordomoz mozorratuta eta kotoi-puska bat eskuan duela. Harrigarria badirudi ere, amak eta alabak pertsona arrotz hori etxetik bidali beharrean, edo polizia deitu beharrean edo beldurturik ihes egin beharrean, pertsona arrotzari kotoiarekin sukaldeko paretak garbitzea uzten diote.

Jarraian, pertsonaia lotsagabeak bi emakumeak lotsarazten ditu kotoiaren geratutako zikinkeria erakusten dienean. Bi emakumeak etsita daudenean, gizon bitxiak garbiketarako produktoa bat erakusten die, zeinek etxea garbitzeko orduan garbitasun hobezina lortzen laguntzeaz gain, euren bizitzan ere zoriontsuagoak egiten dituen. Amak eta alabak, nola ez, bihotzez eskertzen diote"

Kotoiak ez du gezurri esaten, baina publizitateak?

IK1-2



*Publizitatean emakumeari eman ohi zaion beste zeregin bat, etxeko andrearen "berezk" lanak betetzea da. Baina arazoa da, aipatu zereginak emakumearekin bakarrik erlazionatzen direla.*

rentzako dohanik telefonoa du (900 19 10 10), eta 1998ko lehenengo hiruhilekoan 213 dei jaso zituen, horietan 182 emakumeek egindakoak. Orokorrean, jasotzen ditugun mezuen aurrean jarrera kritikoagoa azaldu beharko genuke gu guztiok, lortu nahi dugun gizartearen ereduarekin bat ote datozen aztertu, publizitate-mezuak arreta handiz irakurri eta azaltzen dizkiguten estereotipoak zalantzan jarri. Honez gain, sexoen arteko berdintasuna bultzatzen duten mezuak sortzea piztu behar dugu eta gizarte-eredu ez hain kontsumista eta zuzenago baten alde borrokatu beharko genuke.

\* Jatun Sunqu aldizkaritik (13. zenbakitik) hartuta

## 2- Onik aurkitu dute joan den igandetik desagertu zen mutil gasteiztarra

\*Ansoleta

industrialdearen,  
ondoko landalur  
batean zegoen

ezkutatuta

Erredakzioa/ GAZTEIZ

ONIK aurkitu zuten, atzo eguerdian, joan den Igande goizaz geroztik desagertuta zegoen mutil gasteiztarra. Ertzaintzak Arabako hiriburuko Ansoletako industrialdearen inguruetan topatu zuten gaztea, «urduri, baina osasuntsu».

Javier Rivas 25 urteko gasteiztarra Hegoalde zentro zibikoan ikusi zuten azkenekoz. Futbol partida bat jokatzan ari zela, bat-batean aldageletara irten zen korrika eta harrezkeroztik ez zen bere berririk. Poliziak desagertu salaketa jaso bezain pronto hasi zituen ikerketak. Herenegun arratsaldean hasi zituzten bilaketa lanak, Eusko Jaularitzako Larrialdi Egoerarako teknikariek zuzenduta. Gasteizko komisaldegiko poliziak, Brigada Mugikorrekokoak eta Ertzaintzako Tkakur Unitatea, mobilizatu ziren.

Lehen egunean emaitzarik lortu ez zuten arren, atzo miaketak hasi eta gutxira topatu zuten gaztea, eguerdi aldera. Barne saileko iturriek jakinarazi zuten, Javier Rivas landalur batzuetan zegoen ezkutatuta, bakarrik. Urduri zegoen arren, osasun onean aurkitu zuten. Hala eta guztiz ere, anbulantzia batek berehalakoan eramane zuten, Santiago erietxera, osasun azterketa sakona egin ziezaioten. Bertatik atzo arratsaldean jakinarazi zuten, gazteak ez du biolentzia. seinalerik gorputzean eta espazioa eta denborari buruzko nahasketarik ere ez du.

### Sekta batekiko lotura aztergai

Desagertu kasu hau sekta batekin lotuta egon zitekeela zabaldu zen astelehenean. Atzo artean, baina, lotura horri buruzko konfirmaziorik ez zuten eman nahi izan polizia iturriek. Kasua argitze aldera, ikerketak zabalik daudela baino ez zuen jakinarazi izan nahi Ertzaintzak.

### 3.- Igandean Nafarroa Oinezen parte hartzeko dela egin du EHk

EUSKAL Herritarrok taldeak deitu egin du datorren igandean Iruñean egingo den Nafarroa, Oinezen parte hartzera, «Euskal Herriaren eraikuntzan beste harri bat jartzera esan nahi duelako». XXI. mendearan atarian, Nafarroako ikastolek oraindik ezin dutela beren hezkuntza proiektua, normaltasunaz aurrera eramane nabarmentzen du EHk, eta gogorarazten Ikastolen Elkarte buru-belarri ari dela Euskararen Lege berriaren beharra aldarrikatzen duen mugimenduan.

### 4.- CONSUELO ELOSUA

Lur maite taldea ekologistako kidea.

«Lindano dosi txiki bat nahikoa izan daiteke minbizia eragiteko»

Sondikako aireportuaren segurtasun eza salatu dute

### Funtsean zein da Sondikaren segurtasun ezaren arrazoa?

Urte askotan aireportu inguruan zeuden hainbat zulo zabortezi bezala erabiltzetik dator arazoa. Bertara hainbat produktu isuri zen, eta horien artean lindanoa eta beste zenbait hondakin toxikoagoak. Beraz, etengabeko arriskuan bizi gara.

### . Zer arrisku dago lindanoarekin?

Lindanoa amasketa bidez, kontaktu bidez edo irentsiz har dezakegu gizakiok. Ez da uretan disolbagarria eta zelula grasa deritzonetan barneratzen da. Behin bertan, ezinezkoa da ateratzea. Oso dosi txikiarekin minbizia eragin dezake, eta aukera gehiago dute emakumeek zelula grasa gehiago sortzen dutelako.

### . Temperaturek eraginik al dute lindanoan

Beroak eragin handia du lindanoan, Eguzkiak asko jotzen badu adibidez, Izugarriko kiratsa atera ohi du. Temperaturek eragin handia izan dezakete. Izan ere, kontuan hartu behar da 112 gradurekin lindanoa deskonposatu egiten dela eta hegazkin baten turbina batek bakarrik temperatura askoz altuagoa izaten duela. Deskonposatuz gero, laino toxiko eta hilgarri bat produzitzen du fosgeno eta klorhidrikos osatua.

### .AENA elkarteak dio ez dagoela arriskurik.

Elkarte horrek epaileari adierazi zion istripuren bat gertatzeko aukerarik ez zela. Dena den, matematikoki aukera eza ez da existitzen. Kontuan izan behar da Sondikan lindanoa leku kritiko batean dagoela eta, beraz, arriskua egon badago. Inguruan bizi garenak behintzat hegazkin bat pasatzen den bakoitzean behatzak gurutzatzen ibiltzen gara.

**Ekaitz Agirre**

Donostia

\*Egunkaririk ateratakoak.

# 5.- ALEXANDER BARANDIARAN IK1-4

## Zilborrestea

### GURASO BIAK BENAR DITUT!

Gaur egoera batez hitz egin nahi nizueke, agian gero eta arruntagoa bihurtzen ari dena. Egoera hau gurasoak banatzen direnean sortzen da. Banaketa hau fisikoa (etxe desberdinetan) izan daiteke edo sinbolikoa (etxe berebetean). Banaketa hauetan beti gertatzen da krisialdi bat familiaren partaide bakoitzarengan. Askotan umeek ondo eramaten dutela esateak ez du esan nahi eurek ere krisi garairik pasatzen ez dutenik. Azken finean, beraien fantasia bat hautsi egiten zaie. Zein da fantasia hau? Ama eta aita batera ikustea. Egoera honel mamu asko ekartzen die gogora, bietariko bat galtzearen beldurra, adibidez. Honen aurrean edozein gauza egin dezakete gurasoak lotzeko, egoera berria onartu arte, eta hau kosta egiten ohi zaie. Beraz, prozesu mingarria da umeentzako, eta gurasoen partetik hau ukatzea nire ustetan akatsa da, ez baitaio umearentzako garrantzi handikoa denari beharrezko arreta jartzen. Nola lagundu al diegu, bada, prozesu hau ahalik eta errezen eramaten? Badago zer egiterik. Lehenik, eta garrantzizkoena, umeak psikologikoki eta fisikoki guraso biak behar dituela kontuan hartu. Honek esan nahi du, nahiz eta banaketek maiz gorrotoa eta arrenkura utzi, oso kontu handia izan behar dugula umearen aurrean adieraztearekin. Banaketa askotan umea tartean geratzen da eta, psikologok esaten dugun bezala, leialtasun gatazka bizi du. Umeari erakutsi behar zaio amatxo eta aitaxoren arteko harremana aldatu egin dela, baina beti ere berak nahi duenerako izango dituela, guraso bakoitzak onartzen duela bestearengatik dituen sentimentuak. Guraso bakoitzak bestea umearentzako oso garrantzitsua dela eta harreman hori bultzatu behar duela ikusi behar du eta praktikan jarri.



Aipatutako gatazka bizi duten umeek oso gaizki pasatzen dute eta adibidez, ikastetxeko errendimenduan igartzen da. Beraiantzako lehentasuna gatazka honetatik irtetzea bihurtzen da eta hau da barrutik bare egotea galerazten diena.

Egoera hau etxe berebetean bizitzen ari direnengan ere eman daiteke eta haurrak nabaritu egiten du berehalaxe. Umeek askotan infomiazio falta dute eta horren aurrean bere fantasiak eraikitzen dituzte. Egokia litzateke gertatzen dana azaltzea, eurek ulertzeko moduan noski. Bestalde, gatazkarik ez egotea oso zaila da, eta ez dut esan nahi egon behar ez direnik, baina alde handia dago, umeek gatazkek konpontzen direla ikusten badute (beraien etorkizunerako gaitasun sozialeko ikasgai garrantzitsua), edo beraien gatazka hauek konpontzen saiatzen badira (nahiz eta guraso batzuk honetaz ez konturatu).

Gai hau oso zabala izan arren, hausnarketarako bidea izango zelakoan, hurrengo arte agurtzen zaituztet.

\*7k aldizkaritik aterata

6.- Zuzendari Jaun/Andrea:

Elchen kirol-zapaten makina bat fabrika dago. Nire aitak marka ezagunen zapata fabriketan lan egin du. Fabrika hauetan beste batzuetan baino askoz ere gutxiago ordaintzen zioten, izan ere publizitatea, eta esportazioa eta inportazioa ordaindu behar izaten zuten.

Orain beste zapata-fabrika batean lan egiten du, hain ezaguna ez den marka batentzat, eta soldata hobea du. Etxean badakigu zapatilen kalitatea ez dagoela markaren menpe, eta gainera, garrantzitsuena zapatak edukitzea da.

**Lauro Torres, DBHko 1. maila. Ausías March IP, Elche, (Alicante).**

IK2

	1	2	3	4	5	6
Iritziak agertzen dira?						
Istorio bat kontatzen du?						
Pertsonen arteko solasaldia da?						
Egingo den zerbaiten berri ematen digu?						
Gai bati buruz azalpena ematen digu?						
Tituloa dauka?						
Azpitituloa dauka?						
Kontatzen duena nonbaitetan laburtuta dago?						
Argazkiak edo marrazkiak agertzen dira?						
Pasarte ezberdinetan banatuta dago?						
Luzea ala motza da?						



<b>GERTAERA</b>	Norbait edo zerbaitentzat gorabehera bat duen eta bereziki interes edo esangura duen gertatutako zerbaiten berri.
<b>ERREPORTAIA</b>	Gertakari batzuk ahal den modu zuzenean azalduz egindako kazetari-lana, irudi, zenbait pertsonaren adierazpenaz eta oro har kazetariak berak jasotako informazioez osatua.
<b>IRITZIZKO ARTIKULOA</b>	Zerbaitez edo norbaitez eta bereziki gai edo arazo eztabaidagarri batez pentsatzen denaren egunkarian agertzen den idazkia.
<b>INFORMAZIO BERRIAK</b>	Gaurkotasuna duen zerbaiti buruz informatzen duen egunkarietako adierazpen laburra.
<b>ELKARRIZKETA</b>	Norbaitekin, zerbaiten berri jakiteko edo zerbaiti buruz bere iritzia izateko egiten den solasaldia.
<b>IRITZIZKO ESKUTITZA</b>	Zerbaitez edo norbaitez eta bereziki gai edo arazo eztabaidagarri batez pentsatzen denaren egunkarian agertzen den eskutitza.

**Eurovestirreko bi  
langileren  
protestak  
Nafarroako  
Parlamentuko  
batzarra une batez  
geldiarazi zuen.**

**Bi metroko pitoi-sugea topatu du  
haur koadrila batek Bartzelonan**

Bi metroko luzerako pitoi-sugea aurkitu du aste honetan Bartzelonan haur koadrila batek. Zakar multzo baten azpian aurkitu zuten erdi ezkutaturik, eta egun hauetan egin duen hotza dela eta, hiltzorian.

Sugearen ardura Udaltzaingoak hartu zuen arren, azkenik hil egin da eta dagoeneko hilobiratu dute. Bartzelonako Udaltzaingoak ez du ezagutzen pitoi-sugearen nondik norakoa, baina orain egun batzuk udalerrian egondako zirko batetik alde egindako sugea izan daitekeela pentsatzen dute.

**18 URTEKO GAZTE BAT ZAURITURIK  
ZARAUTZEN IZANDAKO MOTO  
ISTRIPUAN**

ZARAUTZ.- Hemezortzi urteko I.Z.G. gaztea zauriturik suertatu zen atzo arratsaldeko lehen orduan Zarautzen izandako errepide istripuan.

Zauritutakoa moto batean zihoan eta aurrez aurre jo zuen auto baten kontra. Erabat argitu ez diren arrazoen ondorioz izandako ezbehar hau ikertzen ari da Ertzaintza, Gazteizko Herrizaingo Sailaren arabera, eta lekukoaren informazioa eskatu du. Abendafino industri gunea eta Urteta auzoa elkartzen dituen errepidean gertatu zen istripua arratsaldeko 13,45etan. Zauritua Donostiko Poliklinikora eramane zuten.

*\* Azaroan zortzi eguneko greba egingo dute*

Europa Press/Iruñea

EURÓVESTIR enpresako bi langileren protestaldiak Nafarroako Parlamentuko bilkura momentu batez geldí zuen atzo. Bilkuran *Eurovestir, Gobernua errudun* Zioen pankarta zabaldu zuten langileek. Horren ondorioz, Parlamentuko presidente Jose Luis Castejonek unebatez bertan behera utzizuen batzarra. Bi pertsonak pankarta kendu eta aretotik atera zirenean hasi zen berriro. Bien bitartean, kanpoan 50 lagun inguru bildu ziren. lema bereko pankarta baten atzean.

Nafarroako Gobernuak Erriberrin dagoen enpresako, 240 langileetatik 43rentzat enplegu-doiketa onartu duelako egin zuten kontzentrazioa eta greba eguna beharginek. Enpresa Batzordeak esan zuen greba "erabatekoa" izan zela.

Atzoko grebak jarraipena izango du datozen egunetan, langileen batzarrak hala erabakita. 120 langile azaldu ziren alde, 25 kontra, eta 7k ez zuten bozkatu. Greba azaroaren 3an, 4an, 11n, 16an, 18an, 23an, 25ean eta 30ean izango da.

Ricardo Gimeno, CCOO-eko ehungintza federazioko, arduradunak «lotsagarritzat» jo zuen Gobenuaren erabakia, eta gogoratu zuen zuzendaritza eta langileak borondatezko bajak hartzeko aurreakordiora heldu zirela, ekoizpenaren jaitsierari aurre egiteko.

Konpromisoa Nafarroako Gobenuaren aurrean hartu zen. Ondoren enpresak atzera egin zuen eta aurreakordioa ez onartzea erabaki zuen", esan zuen Gimeno. Gobernuari errua botazioan «ez díolako presioa egin enpresari. Gaietik, gero doiketa onartu du», esan zuen. Enpresak, ordea, batzordearen jarrera kritikatu zuen, konponbidea lortzeko oztopoak jartzen dituelako.

### **Loteria irabazi , senarrarengandik bereiztu eta honi dirua eman behar.**

Loterian 1,65 miloi dólár irabazi zuela senarrari esan gabe dibortzioa eskatu zuen emakume bat lortutako dirua senarrari ematera kondenatua izan da senar ohiari sufritutako kaltea ordain moduan , epailearen ustez maliziaz egindako fraude bat izan baitzen.

Emakumeak bere zoriona izkutuan mantendu zuen eta egun batzu beranduago dibortzioaren eskaera aurkeztu zuen , hogeitabost urte ezkondata egon ondoren. Senarrak ez zuen susmo txarrik izan bi urte pasa arte, noiz ailegatu zitzaion etxera loteria irabazleentzako dirua inbertitzeko eskeintza bat .

### **Neska batek 600000 mila pezeta kalera bota**

Pasa den asteartean , irailak 2 , goizeko bederatziretan , neska gazte batek , nahi gabe , Guadalajarako “Avenida del Ejército” kalean dagoen bere etxeko leihotik astintzen ari zen manta batean ezkutaturiko 600.000 mila pezeta zuen pakete bat bota zuen .

Guadalajarako Gobernuak dioenez , ekintza hau gertatu zen aitak manta barruan dirua ezkutatu eta egun batzu ondoren. Neska bere lanean ari zela , ez zen konturatu paketea zegoenik eta hau kalera erori zen .Pixka bat beranduago , goizeko hamaiketan inguru , aitak paketeari buruz galdetzean , gertatutakoaz ohartu zen , ondoren komesaldegira abisatuz .Polizi batzuk kalea behatu ondoren , ez zuten paketea aurkitu , beraz , norbaitek eraman zuela uste izan zuten .

lapurtu ondoren bere biktimari agurtzeko bi musu ematera behartu Balentziar lapur batek lapurtu zion emakumea agurtzeko bi musu ematera behartu zuen. Balentziako poliziak hogeita hamalau urtetako Bernardino B.S. atxilotu dute hiriko etxe batean lapurketa baten ustezko egilea delakoan.

Dirudienez gertaera hau asteartean goizeko bost t'erdietan izan zen , bere etxean lotan zegoen hogeita zazpi urtetako emakume bat esnatu zenean hots batzu entzuterakoan. Sukaldeko labanez mehatxatu eta bi mila pezeta , telefono mobila eta txartel kreditua kendu zizkion gizon bat aurkitu zuen .Hori eta berehala emakumea janztera behartu zuen, ondoren biak etxetik alde egiteko eta hurbil zegoen banku etxe batetara abiatzeko . Behin kutxazainan , eta beti labanaren mehatsuz , hogeita hamar mila eta hogeita mila pezeta ateratzera behartu zuen emakumea . Beranduago Bernardinok biktima bere etxeko patioraino lagundu zuen eta , telefono mobila bueltatu ondoren , bi musu ematera behartu zuen , ondoren alde egiteko .

Poliziak ordu batzu beranduago harrapatu egin zuen.

## DEUSTUKO 14 IKASLE GREBAN DAUDE IRAKASLE EUSKALDUNAK ESKATZEKO

M.L./BILBO Deustuko Eskola Publikoko 14 ikasle greban jarri ziren atzo euskarazko irakaskuntza bermatzen ez dela salatuz. Bostgarren mailako ikasketak B eremuan egiten dituzten haurren gurasoek seme-alabak geletatik atera zituzten “ irakasle euskaldunak ekarri beharrean , erderaz aritzen direnak ekartzen dituztelako” . Nahiz eta guraso hauek maiatzean jarri harremanetan Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzarekin , ez dute oraindik arazo honi irtenbiderik emango dion erantzunik jaso . Horrela, azken egunetan sail honetako ordezkariekin berriro hitz egin badute ere , gurasoek adierazi dutenez , egoerak orain arte bezala jarraituko duela azaldu diete. Ikasleen gurasoek atzo jakinarazi zutenenez , haurrak greba jartzearen ondorioz


ikastetxeko zuzendariak Hezkuntza Ordezkaritzara deitu zuen , eta bertatik garrantzi handirik ez zuela erantzun zioten . Dena den , gurasoen esanetan “ordezkariari berdindio ikasleak ikastetxetik kanpo badaude , baina ez du nahi greban daudenak jolastokian egoterik” . Hala ere , haurrak geletatik aterako dituztela esateaz gain , gurasoek ikastetxean bertan egongo direla ezagutzera eman dute. Hauen iritziz “ onartezina da umeez duten eskubide bat ukatzea , batez ere Gobernuak eta erakundeek egunero esaten badute euskara bermatu behar dugula” . Gurasoen esanetan , “horrelako jokabideekin ez dugu lortuko gure hizkuntza aurrera ateratzea “.

Asteazkena , 1992ko urriak 14  
Egunkaria

Saia zaitetz lehen emandako albistean emandako elementu hauek aurkitzen

NOR/NORK	ZER	NON	NOIZ	ZERGAITK

Euskara 6. Beleko. ELKAR



### TXORROSKILOAREN ISTORIA

Emakume batek liburu zoragarri bat idazteko asmoa zuen. Paper mordoa, berrogeitamar arkatz berri eta txorroskilo on bat erosi zituen. Egun hartatik aurrera bere senarrak eta seme-alabek beti baju hitz egingo zuten eta hanka punttatan ibiliko ziren, emakumeak berehala hasi nahi baitzuen liburua idazten. Orriak prestatu eta arkatza zorrozten zuen bitartean lehenengo esaldian pentsatzen zuen.

Beste arkatz bat zorroztu eta lehenengo esaldian pentsatzen jarraitzen zuen.

Hirugarren arkatza zorroztu eta oraindik ere lehenengo esaldian pentsatzen jarraitzen zuen.

Azkenik, emakumeak, berrogeitamar arkatzak eta beste 7.512 zorroztu zituen. Hiru aste pasa eta artean lehenengo esaldia idazteko zeukan. Baina jadanik arkatzak zorrozten munduko txapelduna zen. Egunkarian azaldu zen.

**Ursula Wolfel: "29 istorio xeblebre"**

**EUSKARA 6. Beleko. ELKAR**

# Eskola frantziarren protesta gogorrek Jospinen Zailtasunak areagotu dituzte

IK7-1

Irakasleak, ikasleak eta gurasoak kaleratu ziren atzo hobekuntzak eskatzeko

Milaka irakasle, ikasle eta guraso 1995etik gertatzen ez zen moduan, batera atera ziren atzo kalera Estatu frantziarrean

irakaskuntzan hobekuntzak eskatzeko Langile kopurua handitzea, lan-baldintza hobekuntza eta segurtasuna eskolatan eskatu zuten, besteak beste. Protesta egun honetan Lionel Jospin lehen

ministroa bere irudia hobetzen saiatu zen eta, telebistan eskainitako mezu baten bitartez, zergak jaitsi eta gastu publikoa handituko duela iragarri zuen, onarpen-maila altxatzeaz asmoz.

GARA 1 PARIS


Frantziar irakaskuntzaren sektore guztiak protesta gogorrek egiteko bildu ziren atzo. Milaka irakasle, ikasle eta guraso kaleratu ziren 1995etik irakaskuntzan ezagutzen ez zen protesta mugimendu bateraturik handienera. Lionel Jospin lehen ministroa bere sinesgarritasuna berreskuratzen saiatzen zen bitartean.

800.000 irakasle deitutako greba jarraitu zuten (%70) eta 200.000 pertsona inguru atera ziren kalera protesta egitera.

Irakasleek hobekuntzak nahi dituzte, osasun arloko langileek berenak lortu ondoren. Martine Aubry lan ministroak martxoaren hasieran ospitaleetako langileen eskaerak onartu eta 1.524 milioi euro gehiago sartu zituen aurrekontuetan, datozen hiru urteotan ospitale publikoetan beste 12.000 lanpostu sortzeko.

Estatu frantziarrak eskuratu dituen diru gehigarrietatik, («Bote» izena jarri diote) orain irakasleek beren zatia nahi dute, eta ikasleekin eta gurasoekin bat egin dute protesta kaleratzeko. Modu honetan, hasieran Gobernuarentzat berri ona izango zena arazoak besterik ez dio sortu.

Eskolak itxi eta diru-laguntza gehiago eskatu zuten irakasleek. Gainera, lanpostuen kopurua zabalitzea eta eskolatan segurtasun handiagoa izatea exijitu zuten. Orain arte Gobernuak irakaskuntzan langilegoaren kopurua ez handitzeko asmoa izan du. Bestalde, momentu honetan irakaskuntzan



Irakasleak atzo Parisen egin zuten manifestazioa.

lanorduak gutxitzeko negoziaketetan hasteko daude.

### Mugimendu bateratua

Ia 200.000 pertsona kaleratu ziren, sindikatuen arabera. Poliziaren arabera, berriz, manifestazio-etan 125.000 pertsonak hartuzuten parte Hezkuntza Ministerioaren arabera, eskolen %60k jarraitu du greba. Paris geldituegin zen, 50.000 pertsonak eginzuten manifestazioak zirela eta. Poliziaren arabera, berriz, 25.000 izan ziren. Marseillan ere 30.000 pertsona kaleratu ziren; 12.500 polizien arabera. Aurreko egunotan ere gose greba, eskola okupazio eta manifestazio ugari izan dira, lanpostu gehiago exijituz.

1995etik, eskuina Gubernuan zegoela, ezagutzen ez zen mugimendua bateraturik handiena burutu dute, eta hiri frantziar nagusietako kaleetan Claude Allegre Hezkuntza ministroaren politikaren aurka kaleratu ziren irakasleak, ikasleak eta gurasoak. Dimisioa eskatzen zuten oihuak ere entzun ziren manifestazioetan. Pankartetan gain nagusia «Ernest Antoine Allegre, hezkuntza patronalaren ministroa» zen, Ernest Antoine Seillere patronalaren presidentearekin alderatuz. «Hezkuntza ministro batek inoiz ez du hainbesteko gorrotoa bildu», adierazi zuen atzo Liberation egunkariak. Eskola kalean. Gubernua presio sozialaren pean. Eta Jospin telebistan "zioen egunkari honek bere lehenengo orrialdeko titularrean.

Izan ere, Jospinek bere sinesgarritasuna berreskuratzen ahalegindu zen atzo telebistan emandako mezuaren bidez. Zergak jaitsi eta zerbitzu publikoetan gastuak handituko dituela agindu zuen, irakaskuntzarenak barne. Lehen ministro frantziarrak iragarri zuen 6.097 milioi euroko zerga murrizketak berehalako eragina izango du.

«Botea» 7.622,4 milioi eurokoa da. Gainontzeko 1.524,4 milioiak aurrekontuetako gastuetan erabiliko du Gubernuak.

Egoera ekonomikoa bere alde duen arren, Jospinek aspaldi ez bezalako irudi publiko txarra dauka gaur egun, eta funtzionarien protestei aurre egin behar die. Hezkuntza arloan 1,22 milioi funtzionario daude, eta, sindikatuen arabera, lan prekarioa zabaltzen ari da, gaur egun dagoeneko 170.000 lanpostu prekario daude eta.

Gainera, irakaskuntzako protestaz gain, Ogasuneko langileek ere greban jarraitzen dute «zerga hildakoen» eguna aurrera eramanez, eta milaka funtzionarioek ere manifestazioak egin zituzten. Lanpostuak gutxitu egingo diren beldur dira. Joan den ostegunean antzeko protesta eguna egin zen, eta zerga bulegoen erdiek parte hartu zuten. Eskuineko alderdiek Gubernuak bizi duen momentu txarra aprobetxatu dute eta agindutako aldaketak gelditzea leporatu diote, 2002ko lehendakaritzarako hauteskundeetan aukerak ez galtzeko. Inkesta batean azaldu denez, Jacques Chiracek Jospini irabazi egingo zion hauteskundeak gaur izatekotan.



## **Eraikuntzako langile bat hil da Alkizan burdinazko sareak gainean erorita**

**Euskal sindikatuek protesta ekintza deitu dute gaur istripua gertatu zen lekuan bertan**

*Lan-munduan egun beltza izan zen atzokoa ere, langile batek bizia galdu baitzuen eraikuntza lanetan ari zela. Istripua goizeko lehen orduan gertatu zen Gipuzkoako Alkiza herrian, bertako urbanizazio lanak egiteko erabiltzen ari ziren sare metalikoak 33 urteko gazte baten gainean erori zirenean. Hildakoaren kideek bertan behera utzi zituzten beren eginkizunak eta ELLA, LAB eta ESK sindikatuek kontzentrazioa deitu dute aurten lanean gertatu den hogeita hirugarren heriotza salatzeko.*

Joseba SALBADOR / ALKIZA

Istripua goizeko 8.30ak aldera gertatu zen Asteasutik doan errepidea Alkizako leen etxeetara ailagatzen den lekuan. Bertan, urbanizazio lanak egiten ari dira otsailaz geroztik –espaloia eta argiak jartzen ari dira eta atzokoa mugimendu haundiko eguna zen, material eta tresneria berria ekarri baitzituzten.

Istripua eragin zuena espaloian hormigoia bota ahal izateko jartzen diren sare metalikoak izan ziren. Kamioitik jeitsi ondoren, sareak zutik zeuden horma baten aurka eta hil zen langilea hauetakoa bat hartzen hasi zen. Une horretan, atzean

zeuden gainekoak –30 inguru- gainera etorri zitzaikion.

Sareek azpian harrapatu zuten arren, ez dirudi langilea berauen pisuengatik hil zenik, baizik eta erortzean espaloiarentzintarrian jo zuen kolpeagatik. Istripua gertatu bezain laster bertara urbildu zirenek egunkari honi adierazi ziotenez, “sare metalikoek ez dute hainbesteko pisurik. Gainera doblatu egiten dira eta ez dugu uste pisuagatik hil denik. Lurrera erortzean espaloia izkinarekin hartu zuen kolpeagatik hilko zen seguruenik” azaldu zuten.

Istripua gertatu zenean, inguruetakoa bizilagunek

larrialdi zerbitzuei deitu zieten eta, bitartean, langilea burdina artetik erreskatatzen ahalegindu ziren. Handik metro batzuetara bizi den gizon batek esan zuenez, “gaur bertan-atzoko egunagatik-ekarritako garabia erabili dute sare metalikoak altxatu eta langilea ateratzeko, baina berehala konturatu dira hilda zegoela». Minutu gutxitan, Ertzaintza eta ambulanziaz medikalizatu bat ailegatu ziren baina ezin izan zuten ezar egin. Hildako langilea A-S.B.33ur-.teko, ondarrutar gaztea zen, eta Añorga Txikiko



Construcciones Ozici SL enpresarentzat egiten zuen lan.

Enpresa honetako langileek, hainbat obratan ari ziren arren, bertan behera utzi zituzten beren eginkizunak, eta gaur goizean protesta ekintza egin dezaketela adierazi zuten. Dagoeneko konfirmatuta dagoen kontzentrazioa ELA, LAB eta ESK sindikatuek dutena da, arratsaldeko 7etan istripua gertatu zen lekuan bertan

Azken hildako honekin, dagoeneko 23 pertsona dira lanean ari ziren bitartean hil direnak Euskal Herrian, hauetariko hamaika eraikuntza arloan, zazpi Nekazaritza eta Basogintzan eta bost Industrian. Atzo bertan CCOO eta UGT sindikatuek espainiar Estatuko datuak eman zituzten ezagutzera eta, joan zen urtarrilean 1999ko hilabete berean baino %20 istripu gehiago izan zela azaldu zuten, hildakorik eragin zuten istripuak %5 gutxitu ziren arren.


# “El Correo” egunkariko kazetari 1K7-3 baten gurasoen etxeari eraso diote

*-Alderdi politikoek «adierazpen askatasunaren, aurkako eraso»  
iritzi diote*

**.El Correo egunkariko kazetari Pedro Briongosen gurasoen etxea eraso zioten atzo eguerdian, bi kanpin-gas bombonaz osatutako lehergailuarekin. Leherketak ez zuen inor zauritu, baina zenbait kalte material eragin zituen. Erasoak gaitzespen ugari jaso zuen alderdi politikoaren aldetik**

PEDRO BRIONGOS Bilboko El Correo egunkariko kazetariari gurasoen etxeari eraso zioten atzo eguerdiko 13:30ak aldera. Etxean egindako lehergailua bi kanpingas bonbonak osatzen zuten. 'Leherketak, su handia eragin zuen, eta etxebtutzako atea eta sarrerako kristalak hautsi zituen. Bilongos Bilboko egunkariko Vivir saileko erredaktore burua da. Haren gurasoak edadetuak dira eta ez ziren zauritu, baina bai

"susto handia» hartu Haien etxebizitza Bizkaiko hiriburuko Autonomia kaleko 68. zenbakian dago, Basurtuko auzotik hurbil.



Lehergailuak su handia eragin zuen eta sarrerako kristalak hautsi zituen.

## **Gaitzespen adierazpen ugari**

Erasoak hamaikatxo gaitzespen jaso zituen atzoko arratsalde osoan. Ibarretxe lehendakariak «tinkotasunez» arbuia

zuen ekintza, «eta zer-nolako herria nahi duten» galdetu zien egileci. «Hau ez da bidea esan zuen Ibarretxek, «eta ez dakit zer nahi duten honelakoak egiten dituztenek, bidegabakeria, amorrua sortzea, euskal gizartean zatiketa areagotzea, beldurra, terrorea». Lehendakari-aren hitzetan, «hori ez da herri bat eraikitze bidea». Bizkaiko ahaldu nagusi Josu Bergarak ere erasoaren aurreko arbuioa azaldu zuen eta «gorrotoaren gainean eraiki daitekeen gizarterik ez» dagoela adierazi zuen.

EAJko Bizkai Buru Batzarraren iritziz, «honelako jokabideak edozein printzipio demokratikotik eta euskal hiritar orok askatasunez defendatu gura dituzten ideiekiko errespetutik

PSE-Eek El Correoko  
kazetariaren gurasoek  
jasandako erasoak  
hiritarren askatasuna  
hondatu eta haien  
eskubideak mugatu, nahi  
dituzten nazien eskutik  
etorri» dela esan zuen.  
Bestalde, EAko idazkari  
nagusi Gorka Knorrek bere  
elkartasuna adierazi zien  
erasoak kaltetutakoei eta  
«prentsa eta informazio  
askatasuna zapuzteko  
saiakera» iritzi zion  
jazotakoari. Eudel elkarteko  
presidente Karmelo Sainz  
de la Mazak bide hori ez  
dela euskal gizarteak  
jarraitu behar duena esan  
zuen. Azkenik, Bizkaiko  
Kazetarien Elkarteko  
presidente Jose Manuel  
Alonsok erasoak gaitzetsi  
zuen. «Kazetariak gizarte  
demokratiko baten  
zerbitzariak» direla esan  
ostean, «informazio  
askatasunean, ez dutela  
etsiko gaineratu zuen.

# Parisko Liburu Azokak gaur Zabaldurk ditu ateak.

IK7-4

Pormgalen presentzia eta irakurketa numerikoa aipagai aurten

Gaurtik martxoaren 22 arte, goizeko 9,30etik arratsaldeko 7ak aurretik jende uholde batek hartuko du Porte de Versaillesen, Estatu Frantziarreko liburugintzaren ekitaldi joera berriak CD-rom eta liburu numerikoen indarrez bideratzen ari dira. Nazioarteko presentzia handia Portugalek, gomiatu bereziak, Europatasunez jantziko du.


Luzien ETXEZAHARRETA  
I PARISE

Azoka guztiak bezala, honek ere gaurko edizioaren errealitatea plazaratzen du, baina antolatzaileek nabarmendu dutenez, «azokak hori laguntzen jakin izan du, eta batzutan aldaketak iragartzen eta argitalpenen mundua erakusten bere aberastasun eta dibertsitatean».

Halaber, helburu argietarikoak da autoreak -aurten 1.800 etorriko diraberen irakurlegoarekin gurutzatzea Horretarako, liburu izenpetze ugari izango da standetan, baina «Autoreen Foruma» edo «Ostatu literarioa» FNACek antolatua ere bai.

Multimedia espazioa urtero handitzen ari da eta aurten espaiol berezia gehituko zaio liburu elektronikoztat. Aldizkariak, liburu munduko edizioak, erakunde publikoak eta Ministerioak beren tokia hartuko dute; komikiak eta argitaletxe gazteak (bi urte hauetan jaio direnak) Saloinak babestuko ditu. Gazteentzat eta hauengan irakurketa bultzatzeko indar berezia egingo da: uste denez 20.000 gazte ibiliko dira aurten, iazko 496 eskola taldeak gaindituz. Hau dena jarraitu duenarentzat, azoka on line emana izanen da ([www.salondulivreparis.com](http://www.salondulivreparis.com)).

Portugal da aurten gomiatu berezia. Portugalgo liburutegia jarria da 300 metro karratuan, 20.000 liburuekin. Portugalgo pabiloia era antolatua da, autoreen erakusketa eta instalazio bereziekin. Berrogeta hamabi autore hurbilduko dira Jose Daramago nobel saridunarekin, Lidia Jorge eta gaurko sortzaile nagusi gehienekin.



Jose Saramago Nobel Saridunaren izango da agurak.

Alvaro de Campos Pessoaaren «heteronimo» batek esana aurreratu da: «Ez gara portugaldar batzuk portugaldarrei idazten ari garenak; hori kazetari eta buru zagi publikoei uzten diegu. Europarentzat eta zibilizazio guztiarentzat idazten ari garen portugaldar batzuk gara». Indar berri bat – eta ez da goizegi- eskualdeei begira egin da aurten, Parisek monopolizatzen duen edificio frantziarra nolabait aldatu nahian. Hogeita bat eskualdeetatik hemeretziak beren standak izango dute aurten.

Beste inizatiba interesgarria «itsas haraindia» rekiko hitzordua, da: Martinika Guadalupe, Guaiana eta Reunion Uhartea beren kultura eta mintzaira krioiolarekin etorriko dira. Oso aipatzekoa da lehendabiziko aldian dela krioiolari errespetu publikoa agertzen zaiola Parisen.

# Donibane kirol elkartearen auzia konpondu gabe dago

Ermitagañako auzo elkarteak horma ez dela bota salatu du

Ermitagañako auzo elkarteak Donibane kirol elkarteak berez erabilera publikoko diren lur eremuak inguratzen dituen horma oraindik bota ez izana salatu du. Izan ere, otsailaren 14an Nafarroako

justizia Auzitegi Gorenak hura eraisteko agindua eman zuen. Era berean udaletxeko Zerbitzu Sonalek lokalak erabili ahal izateko jartzen dizkieten oztopoak jakinarazi dituzte.

## Ainam LEMUNDI 1 IRUÑEA

Udaletxeak Donibane kirol -elkartearekin U-ulmtu zituen lurak herritar guztien erabilerarako ziren, nahiz eta entitate pribatuaren esku egon. Horregatik, auzo elkarteko kideek lur eremu horiek publikoak izatea aldarrikatzen dute. Gainera, 1998. urtean epaitegiek egindako permutaketa baliogabetu egin zuten. Iragan otsailean, bestalde, hamar urtetako auziaren ondoren, Nafarroako Auzitegi Gorenak bizilagunei arrazoia eman zien, kirol-instalazioak inguratzen dituen harresia botatzeko agindua eman.

Dena den, oraindik ez da epaia bete eta Isidoro Escuin auzo elkarteko presidenteak adierazi zuenez, sententzia betetzeko asmorik ez


izateaz gain, beraien harridurako egoitza handitzeko proiektuaren berri e duki dute. Aldi berean, udaletxeak arazoari irteribidea emateko duen borondate falta gaitzetsi zuen. «Ermitagaña auzoa baino biztanle kopuru urriagoa, duten Nafarroako herriek udal kirol-instalazioak dituzte, eta Iruñean, berriz, elkarte pribatuetara jo behar dugu kirol ekintzak egin nahi baditugu, baina gastu hori ez dago hiritar guztien eskura», salatu zuen Escuinek. Auziaz mintzatzeko Hirigintza arloko zinegotziarekin bilkura eskatu zuten, baina, orain arte ez diete erantzunik eman. «Udalak bildu genituen 1.800 sinadurak ez ditu ezertarako izan kontuan. Horrek argi adierazten du lur-eremuak itzultzeko eta horma eraisteko udaletxeak duen interes

urria», azaldu zuen Isidoro Escuinek. Iruñeko hamazazpi auzo elkartek bat egin dute Ermitagafiako bizilagunen aldarrikapenekin. Era berean, Unibertsitateko Foroaren arazo sozialetako sailaren zuzendari Pablo Mayoralek bere egin zituen auzokideen eskaerak, «gatazkari konponbidea ematea beharrezkoa da», gaineratu zuen. Atzo eskaini zuten prentsaurrekoan, bestalde, Udaleko Zerbitzu Sozialek ekintza eta ikastaroak garatzeko dauden hiru lokalen erabilera oztopatu egiten duela salatu zuten. «Gauko hamarretan itxi behar direla agindu digute, baina, hamar eta erdiak arte jarduerak antolatuta ditugu. Gure aburuz, ordutegia jendearen beharretara egokitu behar litzateke, arratsalde gehienak

lanean baitaude», esan  
zuen Escuinek. Une  
honetan, Ermitagañako

auzo elkarteak ez dauka  
biltzeko tokirik eta  
norbaiten etxean edo,

kalean batzartu ohi dira,  
Isidoro Escuinek  
azaldutakoaren arabera.



Lekialak irakita badaude oso, berotze zabalpena murriztu da.

	<b>DEFINIZIOA</b>	<b>ZER AGERTU</b>
<b>TITULARRA</b>	Kazetetako artikulo , erreportai , ... eta berriak labur aurkezten dituen hasierako esaldia , eskuarki letra lodiago eta haundiagoz idatzi ohi dena	
<b>AZPITITULARRA</b>	Behineko titular ondoren jartzen den titularra , lehenengoa azaldu edo osatzeko	
<b>SKRIPT</b>	Kazeta idazkietan nabarmendurik agertzen den gertaeraren funtzezko datuen laburpena.	
<b>MAMIA- DESARROILOA</b>	Kazeta albisteetan gertaeraren funtzezko datuen narrazioa agertzen den lerroaldea	
<b>ZEHAZTASUNAK</b>	Kazeta lanetan gertaeraren funtzezko datuen gehigarri eta inguramenak azaltzen diren lehenengo lerroaldearen ondorengo lerroaldeak	

## TITULARRAK

<b>1.- MANIFESTAZIO JENDETSUA IRUÑEAN</b>	<b>2.- ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA ATZO SOPELAN</b>
<b>3.- AKITANIAKO IRRATIAK INTERNET SARE BAT SORTZEKO BIDEAN</b>	<b>4.- EGURALDIAN GIRO BIKAINA GAUR ERE</b>
<b>5.- HONDARRIBIA C ETA BERMEO B TRAINERILA AZKARRENAK ATZO</b>	<b>6.- KUTXAKO 33 IRAKASLE KALEAN KALTE-ORDAIN BAXU BANAREKIN</b>

ZUEN USTEZ ZEINTZU DIRA ESALDIA OSATZEKO FALTA DIREN HITZAK?

1.-	2.-
3.-	4.-
5.-	6.-

NOLA GELDITUKO LIRATEKE TITULARRAK ESALDIA OSATUA?

1.-	2.-
3.-	4.-
5.-	6.-



## TITULARRAK

<b>1.- DUELA 3.500 URTE GIZAKIEN AZTARNAK AGERIAN ATAPUERKAN</b>	<b>2.- HORMADIK CHAMONIXEN IZOTZ PISTAN GARAITU</b>
<b>3.- INKESTEK ESAN BEZALA, GOREK ETA BUSHEK IOWAN IRABAZI</b>	<b>4.- IZAGIRRE ETA ARIZKORRETA EZIN ARI ROUENEN</b>
<b>5.- SERBIAR-BOSNIAR AGINTARI BAT, USTEZ GERRAKO KRIMINALA, ATXILOOTUA</b>	<b>6.- 18 URTEKO GAZTE BAT ZAURITURIK ZARAUTZEN IZANDAKO MOTO ISTRIPUAZ</b>

TITULAR HAUETAN ADITZA AGERTZEN DA, BAINA NOLA? ZER FALTA ZAIO ADITZARI OSATUTA EGOTEKO?


1.-	2.-
3.-	4.-
5.-	6.-

NOLA GELDITUKO LIRATEKE TITULARRAK ESALDIA OSATUA?


1.-	2.-
3.-	4.-
5.-	6.-

**TITULARRAK:**TITULARREN ESALDIA OSATUTA DAGO.AURREKO  
ARIKETAK KONTUTAN HARTUZ, NOLA LABURTUKO ZENUKETE?

<b>1.- CLINTON INDIARA HELDUKO DA GAUR LEHIA NUKLEARRA GELDITZEKO ASMOZ</b>	1.-
	2.-
<b>2.- GORKA FRAILE ETA ARG PERURENA PRESOEK GOSE GREBA BERTAN BEHERA UTZI DUTE</b>	1.-
	2.-
<b>3.- BI LAGUN HIL ZIREN IGANDEAN EUSKAL ERREPIDEETAN IZANDAKO ISTRIPUETAN</b>	1.-
	2.-
<b>4.- BERMEOKO GIZON BAT HIL DA GAZTELUETXEKO ERMITAKO TEILATUTIK ERORI ONDOREN</b>	1.-
	2.-
<b>5.- NEGU LEHORRA AMAITU ETA ETORRI DA UDABERRIA</b>	1.-
	2.-
<b>6.- CESAR MUÑOZ SOLA PINTORE TUTERARRAREN HILETA ELIZKIZUNA GAUR EGINGO DA</b>	1.-
	2.-



- 1.- Kotxea hartu aurretik , puxikak zintzilikatu egin dituzte eskuetatik.
- 2.- Erosketak egin bezain pronto , poltsa eskuetan dituztela etxera irten dira.
- 3.- Asko ibili denez gero , nekatu egin da eta aitak sorbaldan hartu du.
- 4.- Musika amaitzerakoan , txalo eta dirua jasoko ditu.
- 5.- Eserita dauden bitartean , aita izotzak eroatera joan da.
- 6.- Ez dago zebrabiderik . hau dela eta, txirrindulariak gaizki gurutzatu du errepidea.
- 7.- Izotza emakumeari eman orduko , honek dirua entregatu dio.
- 8.- Txakurra paseatzen duten artean , hitzegiten ari dira.
- 9.- Lagunen zain daude , horregatik bat eseri da etxearen eskaileretan.
- 10.- Hospitaletik atera zenerako , bazuen gurpildun aulkia etxean.
- 11.- Jolastetik bukatzean , estatuaren ondoan gelditu dira deskantsatzen.
- 12.- Kamisetan “J” bat darama , Juani izena baitu.
- 13.- Kontzertua hasi baino lehen ,badoaz biak kaletik oso dotore jantzita : smoking eta gona luzea.
- 14.- Maitemindu zirenetik , besoa lepotik jarrita joaten dira.
- 15.- Musika tresna erosi behar du , jotzen ikasi nahi du eta.
- 16.- Aita konbentzitu ostean , izotz bat erosiko dio.
- 17.- Bira ematear zegoela , eskuin aldetik beste kotxe bat sartu zaio.
- 18.- Lagun batekin topatu da , hortaz berarekin hizketan gelditu da.



## ESALDIAK LOTZEKO DENBORA ADIERAZTEN DITUZTEN HITZAK

**AURRETIK** : Txoriari kaiola zabaldu **aurretik** , leihora begiratu zuen.

**ORDUKO**: Andrea konturatu **orduko** , lapurra ihes egin zen.

**(E)NERAKO**: Ertzainak konturatu **direnerako** ondo gordeta zegoen poltsa furgoneta barruan.

**BEZAIN PRONTO**: Alkandora sutan ikusi **bezain pronto** beldurtu egin da mutikoa.

**SEGITUAN**: Lapurrak poltsa kendu diola somatu eta **segituan** hasi da oihuka anderea.

**BEREHALA**: Lapurrak poltsa kendu diola eta **berehala** hasi da oihuka emakumea

**-TAKOAN**: Dena lapurtu diotela konturatutakoan, eskuak eraman ditu burura saltzaile batek.

**OSTEAN**: Argazkiak ateratzeko **ostean** , turistei deika ari da gida.

**(E)NETIK**: Ilargik eta Oierrek elkar ikusi dutenetik , ez dute pakerik izan.

**(E)NEZ GEROZTIK**: Japoniarrak autobusatik jeitsi direnez **geroztik** , argazkiak ateratzen ari dira.

**-T(Z)ERAKOAN**: Kotxetik irtetzerakoan , hankak luzatu ahal dituzte bidaiariek.

**BAKOITZEAN**: Reyesek ahoa zabaltzen duen **bakoitzean** , sutan jartzen du norbait.

**ARTEAN**: Denak etorri **artean** ezin izango dira sartu automobileran.

**UNE BEREAN**: Gizona zulora erori den **une beran** emakume bat ohartu egin da.

**ESALDIAK LOTZEKO ZERGATIAK ETA ONDORIOAK  
ADIERAZTEN DITUZTEN HITZAK**

**-Z GERO:** 6,25 marratik saskiratuz **gero** , hiruko jokaldia lortuko duzu.

**BERAZ:** Nekatuta nago , **beraz**, ohera noa .

**HAU DELA ETA:** Katarro handia harrapatu du , **hau dela eta** , ez da kanpaldira joango.

**HORREGATIK:** Euri zaparradak blai utzi ditu , **horregatik**, arropa aldatu behar izan dute.

**BAIT-:** Busti **baitziren** , katarroa harrapatu zuten.

**-GATIK:** Berandu ailegatze**gatik** , pelikularen hasiera galdu zuten.

**-T(Z)EARREN:** Zazpiretan afaldu zuten pelikulara garaiz ailegatze**arren**.

HUTSUNEAK BETE.KONTUTAN HARTU BEHAR DUZU LEHEN  
**ALDIA** ERABILI BEHAR DUZULA ETA OHIZKOA ,  
 MOMENTUZKOA EDO BUKATUA DEN ESALDIA.BEHAR ADITZA  
 EZIN DUZU ERABILI.

Ainara etxean (ikasi)\_\_\_\_\_ telefonoaren hotsa  
 (entzun)\_\_\_\_\_ **nean**. Aulkitik (altxatu)\_\_\_\_\_ Ainara baina  
 telefonoaren txirrina bat-batean (isildu) \_\_\_\_\_.Hasperenka , aulkira  
 (itzuli) \_\_\_\_\_ eta askotan (egin) \_\_\_\_\_ bezala txirikordaren punta  
 behatzen biribilkatzen (hasi) \_\_\_\_\_. Egun horretan , auskalo zergatik  
 , ikasten (jarri)\_\_\_\_\_ **aldi**ro zerbaitek edo norbaitek (moztu)\_\_\_\_\_  
 kontzentrazioa Ainarari: lgoa bere anaiak , zapaten lokarriak askatzeko  
 (eskatu)\_\_\_\_\_ ; gero bere amak , askaltzeko zer nahi zuen (galdetu)  
 \_\_\_\_\_ ;ondoren bere kaleko obretako makinak , momentu batean  
 erraldoi baten puzker bezalako zarata ikaragarria (atera)\_\_\_\_\_  
 .... eta azkenik telefonoa , juxtu ikasgaiaren zatirik interesgarriena  
 (erreparatu)\_\_\_\_\_ **momentuan**.

Ainara aulkitik (altxatu) \_\_\_\_\_. Horrenbeste mozketekin  
 ikasteko gogoia (joan) \_\_\_\_\_. Leihotik begira (jarri) \_\_\_\_\_.  
**Une horretan** ama gelan (sartu) \_\_\_\_\_ eta zutik ikustean , haserre ,  
 ikasten egon beharrean, ea zer (egin)\_\_\_\_\_ (galdetu)\_\_\_\_\_ .

Hau miseria!



## GERTAERA

### AZKEN PRODUKZIORAKO KONTROL ZERRENDA

#### GERTAERAREN ATALAK

TITULARRA: Hitz gutxitan eta askotan aditzaren elipsia erabiliz , gertaeraren ekintza (zer) agertzen den esaldia (arazoa edo ondorioa). Letra tipo handiagoa eta berezia. Derrigorrezkoa.	
AZPITITULARRA: Hitz gutxitan titularraren azpian agertzen den titularraren zehaztapenen esaldia (nor edo non edo ...). Titularran baina letra tipo txikiagoa baina berezia ere. Ez da derrigorrezkoa	
SKRIPTA: Azpitularra ta ondoren laburkiz gertaeraren datu garrantzitsuenak (zer , nor , non , noiz eta zergaitik) kontatzen digun lerroaldea. Letra tipo txikia baina indartua. Ez da derrigorrezkoa.	
MAMIA: Skripta ta ondoren testuaren lehenengo lerroaldea non zabaltzen diren gertaeraren daturik garrantzitsuenak. (zer, non, nor, noiz zergaitik eta askotan nola). Letra tipo arrunta eta txikia. Derrigorrezkoa.	
ZEHAZTAPENAK: Mamiaren lerroaldearen ondoren agertzen den bigarren lerroaldea non azaltzen diren gertaeraren datu garrantzitsuen osagarriak (nola , aurrekoak , ondorioak , ...). Letra tipo arrunta eta txikia. Ez da derrigorrezkoa.	

#### ADIERAZPENA

ADITZA: Lehen aldiak kontatu behar da gertaera ondo bereizten bukatua , ohizkoa edo momentuzkoa den ekintza.	
ESALDIAK LOTZEKO HITZAK: Berezi landu ditugun denbora eta zergaiti-ondoriak adieraztekoak agertu behar dira. (IK14 begiratu)	
PUNTUAZIOA: Ohizkoak direnez gain , kontutan hartu gertaeraren parte bakoitza lerroalde ezberdin batean idatzi behar duzula. Beraz , puntu ta hurrengo lerroa egiteaz gain , zaindu barneratzeak (“sangria”).	
ORTOGRAFIA: Hitz arrunten ortografia ondo idatzi behar duzu eta ikasi ditugun hitz berrien ortografia begiratu.	

**OHARRA:** *Zure testua bukatutzat eman baino lehen konproba ezazu kontrol zerrenda honetan agertzen diren aholku guztiak betetzen dituen ala ez . Horretarako x bat egin eskuineko kasilan ontzat ematen duzunean.*

*Lan egiterakoan komenigarria eta askotan beharrezkoa da landu ditugun materialak kontsultatzea eta erabiltzea.*

## **URKOK ORGASMO HITZA AIPATU**

**IKASTOLA BATEAN, INGURUNE ARLOAN, 5. MAILAN  
GERTATU ZEN**

*Urko izeneko mutiko batek,  
Hegoalde Ikastolan, Ingurune  
arloan, 2002ko otsailaren 10an,  
orgasmo hitza aipatu zuen.*

E. IRIARTE / I. ARMENDARIZ

Urkok, 10 urtetako mutiko bat, orgasmo hitza aipatu zuen, Ingurune arloan zeudenean, 2002ko otsailaren 10an. Hegoalde Ikastolan gertatu zen, Arrosadiako auzoan, hau da, Iruñean.

Orgasmo hitza esan ondoren, denak parrez hasi ziren eta Urko gorri-gorri jarri zen. Gehienak parrez hasi ziren, nahiz eta ez jakin zer zen orgasmoa! Azkenean pasa zitzairen eta, berriro ere, lan egiten hasi ziren.

## **UNAI S. AULKIAN LOTUTA**

**MARIPAZEK LOTU ZUEN HEGOALDEKO JANTOKIKO  
AULKIAN**

*Unai S. Hegoaldeko jantokian lotu zuten,  
atzo eguerdian, asko mugitzeagatik.*

U. EIZAGIRRE/ U. SANCHEZ/ J. OTANO

Atzo eguerdian, Unai S. izeneko mutikoa, 10 urte dituena, egunero bezala bazkaltzera jantokira jeitsi zen eta txikiekin jolasteko asko altxatzen zenez, Maripazek soka bat hartu eta aulkira lotu zuen.

Unai S., klaseen ostean, beti bezala, jantokira jeitsi zen. Bazkaltzen ari zelarik, txikiak jeitsi eta zirikatzen hasi ziren. Unai S. zutik zebilela, Maripaz, jantokiko arduraduna, ohartu eta aulkira soka batekin lotu zuen. Ordubiak laurden gutxitan askatu zuen eta Unai pozik patiora joan zen.

## EKAITZEK ETA ENDIKAK GELA GARBITU

### HEGOALDE IKASTOLAN LEHENENGO EGUNEAN GERTATU ZEN

*Ekaitzek eta Endikak, 6. mailako bi mutil, hamaiketako orokorrean lurra zikindu zuten eta, ondorioz, gela garbitu behar izan zuten.*

M. IRIGOIEN/J. BITAS

Ekaitzek eta Endikak gela zikindu zuten, ikastolako lehenengo egunean, 6. mailan, hamaiketako orokorrean eta Reyesek, irakaslea, konturatu bezain pronto, atezaindegira bidali zituen, erratza eta zoru garbigailuaren bila eta gela garbitu behar izan zuten.

Gela garbitu aurretik, mahaiak eta guzti kendu zituzten ikasleek, bi mutilek hobeto garbitzeko. Garbitzen hasi orduko, bere gelakideak parrez hasi ziren, gelditu ezinik.

## HEGOALDE IKASTOLAKO IKASLE BATI KRISTAL BAT SARTU ZITZAION OINAN MANGERADAKO FESTAN

### HEGOALDE IKASTOLAKO 5. MAILAKO IKASLE BATEK, LOREA MARTXUETA, ISTRIPU HAU IZAN ZUEN

*Lorea Martxuetari, Hegoaldeko 2003ko urte bukaerako festan, botila baten zatia oinan sartu zitzaion.*

AGIRRE/ L. ANDUEZA

Ekainaren 20an, Lorea Martxueta izeneko 11 urtetako neskatila bati oinan kristal zati bat sartu zitzaion mangeradako festan. Norbaitek botila apurtu eta zatiak lurrean utzi zituen. Neska hau korrika zihoan eta, konturatu orduko, kristalak txankleta zeharkatu zuen, oinan sartuz.

Aurretik, neskak bere gelakideekin hamaiketakoa hartu zuen eta segidan guztiak atera ziren mangeradara. Hurrengo egunean, neskak gelara oina igeltsatuta eraman zuen.